



Hockey Eguna kirol hau sustatzeko topaketa benetan arrakastatsua bilakatu da

Belar hockeya 8 eta 14 urte bitarteko 180 neska-mutil inguru elkartu zen beste behin joan den larunbata abenduaren 22an Bera Berako zelaian

II. U.

Hockey Eguna kirol hau sustatzeko topaketa benetan arrakastatsua bilakatu da duela sei edo zazpi urte Gipuzkoako Hockey Federazioak gaztetxoan kategorietan bultzada handi bat lortzeko ekimen hau sortzea erabaki zuenetik. Dagoeneko hamar aldiz ospatu da Bera Berako zelaian hasieran bakarrik neguan eta orain udan ere antolatzen den hockey festa handi hau, hain zuzen ere umeentzat guztiz ahaztezin egiten den adiskidetasun egun zoragarria. Bejondeizuela!

Beste behin, 8 eta 14 urte bitarteko 180 neska-mutil inguru elkartu zen joan den larunbata abenduaren 22an Bera Berako zelaian urtean bitan (bestea ekainean) gozatzeko aukera duten jardueran, hila betetan itxoiten ari direna. «Gutxi gora behera azken ekitaldietan izan dugun partaidetza errepikatu zen eta oso pozik gaude hasieratik lortzen ari gareen zenbakiekin», nabarmendu nahi izan du Ion Kamio, Gipuzkoako Hockey Federazioko zuzendari teknikoak.

«Duela sei edo zazpi urte hasi ginen Hockey Eguna antolatzen. Hasieran neguan besterik ez genuen

egiten, baina horrek lortzen ari zen arrakasta ikusita, udan beste ekitaldi bat egitea erabaki genuen. Dagoeneko 10 topaketa antolatu ditugu pasa den abenduarekin eta oso pozik gaude umeen erantzunarekin. Izan ere, oraingoz ezin ditugu ume gehiago sartu, bestela partidak antolatzeko leku zailtasunak izango genituzke eta», azaldu du Kamio.

Zailtasunak infantiletan

Gaztetxoan artean belar hockeya sustatzeko eta ezagutzera emateko helburu nagusiarekin sortu zuten ekimen hau. Izan ere, alebin mailan ikastoletan nahiko jolasten da hockeyan, baina hurrengo kategorietara pasatzeko momentuan zailagoa da umeek hockeya aukeratzeko aukera duten jardueran, hila betetan itxoiten ari direna. «Gutxi gora behera azken ekitaldietan izan dugun partaidetza errepikatu zen eta oso pozik gaude hasieratik lortzen ari gareen zenbakiekin», nabarmendu nahi izan du Ion Kamio, Gipuzkoako Hockey Federazioko zuzendari teknikoak.

Agian espero ez zutena urteak joan eta urteak etorri topaketa honek lortzen ari den haziera, nahiz eta nahiko argi zuten festa handi bat antolatu nahi zutela: «Ekitaldia asko hazi da eta balorazioa bikaina da.



Gaztetxoek benetan gozatu zuten Bera Berako zelaietan ospatu zen topaketa polit honetan. :: UNANUE

Oso egun polita da parte hartzen duten pertsona guztientzako. Umeek hockeyan jolasten pasatzen dute egun osoa, lagun berriak egiten dituzte eta harreman bikaina sortzen da beraien eta monitorean artean. Umeek itxoiaren duten hitzordu dela uste dugu», adierazi du.

Izan ere, haur guztientzako sekulako aukera da topaketa hauetan zehar maila goreneko hockey jokalarien aginduetara egotea. «Irakasleak umeentzako eredu argiak dira. Ohorezko Mailako hockey jokalariek dira, hain zuzen ere gaztetxoek amesten dutena dagoeneko lortu duten kirolariak. Monitorean artean ere harreman oso ona dute eta haurrentzako oso polita da egun oso bat pasatzera beraien zuzen erreferente diren jokalariekin», goraipatu du.

Kamioren ustez, argi eta garbi dago kirolari handi hauen parte-hartzeak garrantzia handia duela ekimen honek lortzen ari den arrakasta bikainean: «Benetan eskertu behar zaie monitoreei Hockey Egunean zehar egiten duten lana. Egunduz eta nekagarria da beraiantzat, badakigu, baina gustura egiten dute, oso ondo pasatzen dute eta. Beraiei esker antolatzen da ekimen hau eta

«Dagoeneko hamar topaketa antolatu ditugu eta oso pozik gaude emaitzekin»

«Orain ezin ditugu ume gehiago sartu, bestela antolatzeko zailtasunak izango genituzke eta»

hori nabarmentzea derrigorrezkoa iruditzen zaigu», aitortu du.

Hockeya hazten ari da

Zailtasunen gainetik, hockeyak bere lekua lortzen ari da gaztetxoaren artean, gero eta gehiago Kamioren iritziz, beraien lanari esker eskertzen ari diren saria: «Hockeya hazten ari da. Federaziotik jarduerari antolatzen ditugu hockeya sustatzeko helburuarekin eta emaitzak agerian daude. Ikastoletan promozioak egiten dira, baita teknifikazioak ere, eta bestelako topake-

«Monitoreak Ohorezko Mailako jokalariek dira eta umeentzako eredu argiak direla uste dugu»

«Haurrek jolasten duten bitartean lagun berriak egiteko aukera dute eta benetan gozatzen dute»

tak. Zenbakiak gero eta gehiago igozen ari dira eta lan guzti horrek dakarren saria da», ospatu du Kamiok.

Hala ere, zailtasunak aurkitzen dituzte oraindik, gehien bat umeek kirol bakar bat aukeratu behar dutenean. Izan ere, eta «nahiz eta Eskola Kirolean hockeya nahiko ikusten den», erroka nagusia «umeek bere kirola aukeratzekoan daukagu. Argi dugu infantil mailarako jauzi horretan futbola edo saskibaloia bezalako kirolekin ezin dugula lehiatu. Hala ere, gure nahia une hori iristean gero eta gazte gehi-

gok hockeya aukeratzeko da, noski», dio Kamiok.

Zelai bakar bat Gipuzkoan

Gipuzkoa osoan zehar, Bera Berako hockey zelaiak besterik ez dago, kirol honen inguruan lan guztia benetan zailtzen duen baldintza: «Zelai bakarra daukagu eta denboraz larri gabiltza. Hockeya hazten ari da, baina zelaiak ezin da hazi, ezta eguneko orduak ere. Horrela ezin dugu hazi, ez kalitatean ezta kuantitatean ere», sentitzen du Kamiok. Hala ere, etorkizuna ez da hain beltza, Ionon ustez. Izan ere, «orain badirudi Anoetako berrikuntzarekin beste zelai bat egingo dela. Guretzako sekulako berria izango litzateke, benetan ospatzeko modukoa».

Guzti hau kontutan izanda, Ionnek argi dauka «izugarrikoak direla hemen lortzen diren emaitzak. Baldintza guzti hauekin, benetan ikaragarria da orain gauden lekuan egotea eta daukagun maila», iruditzen zaio. Izan ere, «Euskadi osoan lau hockey zelai besterik ez dago; eta Gipuzkoan bakar bat. Eta Katalunian, adibidez, klub batzuek beraiantzako lau zelai dituzte», azpimarratu nahi izan du.

REALAK IAZKO LIGA IRABAZTEA MIRARI BAT IRUDITZEN ZAIE

«Gipuzkoan hockeyan jolasteko tradizio handia dago eta, gainera, azken urteetan egiten ari den lana asko hobetu dela uste dute», ospatzen du Kamiok, argi bait dauka hala ere kirol honen egoera ez dela aproposena gure lurraldean: «Egia esan, daukagun baldintzekin ia ia mirariak dira lortzen diren emaitzak eta, adibidez, Realak iazko Liga irabazi izana», azaldu du Gipuzkoako Hockey Federazioko zuzendari teknikoak. Izan ere, Realeko neskek «zelai erdian entrenatzera behartuta daude eta horrek asko baldintzatzen du maila honetako talde baten prestakuntza. Baina hala eta guztiz ere, talde oso lehiakor izatea lortzen dute denboraldi gehienetan eta titulu eta lorpen ugari eskuratu dituzte azkenaldian», goraipatu du.